

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak 2017-2019ko Tokiko Azpiegitura Planaren Foru Legearen proiektua onartu du

*Toki-erakundeek proposatutako inbertsioak 100 milioi eurekin finantzatzea proposatzen du hurrengo hiru urtekoan lurralde-oreka handiagoa lortze aldera*

Osteguna, 2016.eko irailak 29

Landa Garapeneko, Toki Administrazio eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizalde eta Toki Administrazio zuzendari nagusi Xabier Lasak 2017-2019ko Toki Azpiegitura Planaren Foru Legearen proiektua aurkeztu dute gaur arratsaldean; proiektu hori Foru Gobernuak atzo, asteazkena, onartu zuen, eta Parlamentura igorriko da laster eztabaidatu eta bozkatu dadin.



Planak 100 milioi euroz lagunduko ditu udalek proposatutako inbertsioak.

2017-2019ko Toki Azpiegitura Planaren (TAP) 100 milioi erabiliko dira datorren hiru urteko, eta tamaina txikiagoko eta sakabanaketa geografiko handiagoko toki-erakundeek proposatutako inbertsioak lehenetsiko dira; horrenbestez, Nafarroaren lurralde-orekarako tresna izango da, aurreko planen filosofiak alde batera utziz eta udal handiei onura egin zietenak (Iruñerriari eta Tuterari, beraz), foruko mapan landa-eremuan gehiago dauden edo okerrago dauden beste zonalde batzuen gainetik.

Elizalde kontseilariak prentsaurrekoan azaldu duenez, “Nafarroako Gobernuak apustu sozialarekin konprometitu dagoen TAP proiektu baten aurrean gaude, eta enpresa parte-hartzaileak behartuko ditu sortutako lanpostuen heren bat gizarteratzeko gutxieneko errenta jasotzen duten pertsonentzat izatea; inbertsioetarako interes sozialeko irizpideak ere sartzen ditu, azpiegiturak eta hornidurak mendeko pertsonen beharrei egokitzuz (desgaitasunak edo mugikortasun arazoak dituztenak), bai eta derrigorrezko irakaskuntzako ikasleen beharrei egokitzuz ere; lehen aldiz, gainera, teknologia berriak, banda zabalaren bidez, landa-eremuetara eta ekonomikokiko kaltetutako zonaldeetara hurbiltzeko aukera ematen du”.

Elizalde TAP proiektuak toki-inbertsioetarako ekarriko duen hobekuntza tekniko azpimarratu du: “espedienteen izapideak arintzeko garaian hobekuntza handia ekarriko du, eta gainditu egiten ditu burutzeko

eta aurrekontuetan zehaztutako dirua erabiltzeko oztopoak, Finantza Egonkortasuneko eta Aurrekontuen Jasangarritasuneko arauak ezartzearen ondorioz sortuak.” adierazi du; ondoren erantsi du “orain arte Nafarroan onartu diren TAP guztien artean objektiboena izango dela: inbertsio bakoitzak aldeko hiru txosten beharko ditu: teknikoa, juridikoa eta ekonomikoa, eta egoera horrek objektibotasun goreneko berme gehigarria ematen dio toki-erakundeen aurkeztutako proposamenen hautaketari”.

### **Trantsiziozko TAP bat tokiko erreforma aztertzen den bitartean**

Foru Legearen proiektu honek aurrekoa ordeztuko du (laurtekoa eta 2008koa), eta aurreko legealdian epe beragatik luzatu zen. Proiektu berriak Gobernu babesten duten indar politikoei sinatutako programa-akordioa betearazten du, trantsiziozko TAP baten lanketa sustatzea erabaki zutena, toki-erakundeen finantzaketa orokorreko formula berria onartzen ez zen bitartean, Nafarroako Toki Erreforma jorratzen duen partaidetza-prozesuko esparru orokorraren barnean.

“Finantzaketa berri horren funtsezko oinarriak 2019rako onartuta egon daitezten aurreikusten da; hala, urte horretan bestelako finantzaketa-sistema bat ezingo da proposatu, Erreforma horrekin bat etorritik. Beraz, trantsiziozko plan baten aurrean gaude eta, ziur asko, Nafarroan onartzen den ezaugarri horiek dituen azkena”, aurreratu du Elizalde kontseilariak.

### **2017-19ko TAP, zehaztasun guztiekin**

TAPen bertsio honen idazketaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: lurralde-oreka, elkartasun soziala, plan gidariei lotutako oinarritzko zerbitzuen hazkundea, prozedura-arintasuna eta zuzentasun-bermea tokiko obraren finantzaketan.

TAP berrirako bideratutako 100 milioi euroak indarrean dauden bere hiru urteetan honako era honetan banatuko dira: 20 milioi 2017rako, 40 milioi 2018rako eta beste 40 2019rako. Lehen urteko zuzkidura txikiago baten arrazoia da obrak egiteko denbora gutxiago dagoela, 2017ko lehen seihilekoan Toki Programazioaren ataleko obra-eskaerak izapidetu beharko baitira, eta toki-erakundeek bideragarritasun ekonomikoko proiektuak eta planak aurkeztu beharko dituzte; horrek guztiak ekarriko du bigarren atala egikaritzeko denbora gutxiago izatea, eta haren edukia maila txikiagoan azken bi urteetan egingo da.

Proposatutako Toki Inbertsioen Plana hiru ataletan banatzen da:

1. Inbertsioen programa (34 milioi): Uraren Goi Horniduraren Gida Planari (20,4 milioi), Hiri Hondakinen Gida Planari (9,5 milioi) eta Banda Zabaleko Gida Planari (4 milioi) lotutako obrak sartzen dira, Informatika, Telekomunikazio eta Berrikuntza Publikoko Zuzendaritza Nagusia egiten ari dena, eta laster onartuko da.

2. Tokiko programazioa (43 milioi). Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak onartutako obraren finantzaketa sartuko da toki-erakundeek egindako eskaeren balorazio teknikitik abiatuta. Ondorengoak hartzen ditu barnean: hornidura, saneamendu eta euri-uren tokiko sareak (11,26 milioi), kaleen zolaketa (13,54 milioi sare bidezko zolaketarako; eta 1,6 milioi sarerik gabeko zolaketarako); herriko argiak (5 milioi); eraikin publikoak hobetzea eta egokitzea (6,6 milioi); eta jendea bizi den gunetarako bideak konpontzea (5 milioi).

3. Erabakitze libreko inbertsioak (23 milioi): toki-erakundeen esku dauden zenbatekoak dira, eta haien erabakiko dute zer erabilera ematen zaien. 3.000 biztanletik behariko udalerriek (17,25 milioi) kopuru handiagoa jasoko dute proportzionalki 3.000 biztanletik gorakoekin alderatuz (5,75 milioi); izan ere, haien egoera orokorra, hornidura aldetik, biztanle gehiago dituztenena baino eskasagoa da.